



Jai batzordeko kideak aurtengo zapiarekin eta kartelarekin. **MADDI VIANA**

Urdintzuko zubira itzuliko da kukaña Loiolako jaietan

Loiolan, urtero legez, San Ignazio jaiak ospatuko dituzte, baina egun bat gutxiago iraungo dute aurtén. Hala ere, jarduera kopurua ez da txikitu, jai batzordeak programa moldatu egin du jardueren eskaintza mantenduz.

Maddi Viana

Loiolako San Ignazio jaiak ohikoz bost egunetan zehar ospatzen diren arren, aurtén lau egun iraungo dute. Uztailaren 30ean hasi eta abuztuaren 2ra arte ospatuko dituzte jaiak. Hala ere, jai batzordeak argi izan du jarduera eskaintza kopurua mantendu nahi dutela; horretarako, programa moldatu egin dute, ohiko jarduera denak epe murriztuagoan eskainiz.

Aurtén, beste berritasun bat ere badute, helduen kukaña berriro ere Urdintzuko zubira itzuliko da. Azken urteetan Latsarien plazan dagoen ontziralekuan egin izan dute, eta jende asko gerturatzen da bertara, Oier Mikeo, jai batzordeko kideak adierazi duenez. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute helduen kukañan. Gazteagoek, aldiz, umeen

kukañan parte hartzeko aukera dute. Honakoa ontziralekuan mantenduko da.

Bestalde, izen ematea duten jarduerak ere badaude: goitibeherak, Got Talent, kanoa herrikoiak eta kuadrilla jolasak. Loiolako jaien sare sozialetan aurkitu daiteke horietan izena emateko bete behar den galde-egia. Bestetik, umeentzako jarduera eskaintza gehiena Sustrai Aisialdi Taldearen esku dago. Haiek prestatzen dituzte jaiak hasiera ematen dien Globota, moto eta trizikloen lasterketa mundiala, San Fermin txikiko tailerra eta entzierroa... Ginkana Nazkagarriara apuntatzeko ere izena eman behar da, aisialdi taldearen sare sozialen bidez edo posta elektroniko mezuzatuz.

«Auzotarrek parte hartuko duten jarduerak antolatu nahi ditugu, gaztetxoenetatik hasita helduenetara arte»

Prestakuntza eta antolakuntza

Auzoak ere antolakuntzan laguntzen du, aurretik aipatutako jardueraz gain, bestelako laguntza ere eskaintzen du. Mikeok aipatu du bilera irekia egin zuela jai batzordeak orain dela gutxi, jaietan laguntzeko prest egongo diren auzotarrekin biltzeko, eta «espero baino jende gehiago» hurbildu zela aitortu du.

Programan dauden jarduerak denetariokoak dira, haurrentzat eta helduenentzat ere, horregatik gogorarazi nahi izan die Mikeok auzotarrei garrantzitsuena «gustuko duzunarekin geratzeari» dela, auzoko jaiak guztientzat direlako. Jai batzordea jai herrikoiak, parte hartzaileak eta adin guztientzako pentsatutakoak antolatzen ahalgintzen da: «Auzotarrek parte hartuko duten jarduerak antolatu nahi ditugu, gaztetxoenetatik hasita helduenetara arte». ●

ASTEAZKENA 29

17:30

Hip Hip Ura ikuskizuna, Latsarien plazan.

OSTEGUNA 30

18:00

Txupinazoa eta Globota Latsarien plazan.
Buruhandiak eta erraldoiak Elektrotxuflarekin.

19:00

Danborrada, Loiolatarratik abiatuta.

20:00

Kontzertua Aldazabalen: Anonimos.

22:00

Mikeltxi DJ-a, Latsarien plazan.

00:00

San Ignazio eguneko bandera igoera.

00:10

Zezensuzkoa, Latsarien plazan.

OSTIRALA 31

08:00

Barrene herrikoia frontoian.

09:00

Diana albokariekin auzoan zehar.

11:30

San Fermin txiki tailerra Gibelurdineko plazatxoan.

12:00

San Fermin txiki entzierroa.

12:15

Igandea txaranga, auzoan zehar.

14:00

Familien bazkaria, Latsarien plazan.

16:00

Tardeoa Satorran.

Ginkana Nazkagarria (+8), Latsarien plazan.

17:00

Futbolin txapelketa eta haurren kukaña.

18:00

Sagardo Eguna Eliza kalean.

18:30

Buruhandiak eta erraldoiak Igandea txarangarekin.

19:00

Bertso saioa Latsarien plazan.

20:30

Kontzertua Aldazabalen: Nokono.

22:00

Kontzertuak: Barrk + La Basu + Siwanaba DJ-a.

00:00

San Ignazio eguneko bandera jaitsiera.

LARUNBATA 1

09:00

Txistularien diana, auzoan zehar.

10:30

Puzgarriak, Latsarien plazan.
Pala txapelketa finalak frontoian.

12:00

Piragua herrikoiak ibaiertzeko paseoan.
DJ-a Maritxun.

14:00

Kuadrillen bazkaria Latsarien plazan.

16:00

Mus txapelketa plazan eta karaokea Gibelurdinen.

16:30

Kuadrilla jolasak, Latsarien plazan.

18:00

Estropada ofizialak ibaiertzeko paseoan.
Haurren goitibeherak Ariztigañan.

18:30

Goitibeherak Ariztigañan.

19:30

Tardeoa txosnan.

20:00

Kontzertua Aldazabalen: Black Smoke.
DJ-ak Igeltegin: Pablo Fdz x Alvaro Cano.

IGANDEA 2

09:00

Txistularien diana, auzoan zehar.

10:30

Bigarren eskuko azoka, Latsarien plazan.

11:00

Rolling Circus Show ikuskizuna, Latsarien plazan.

11:30

Ardo eguna eta Duke DJ-a, Eliza kalean.

12:00

Sardina jana, Satorra tabernan.

12:30

Kantujira Benta zaharreko mutiko alaiekin.

13:00

Kontzertua Sardexkan: Radiorebelde.

16:00

Moto eta trizikloen lasterketa mundiala plazan.

17:30

Loiola Got Talent! Latsarien plazan.

18:00

Mariatxiak Gibelurdinen.

19:00

Toka txapelketa, Plazaburun.

19:30

Kukaña, Ilargi txarangak girotua.

20:00

Bingo tradizionala, Latsarien plazan.

20:30

Kontzertua, Aldazabalen: Javier Sun.

21:00

Kuadrillolinpiadetako sari banaketa plazan.

22:30

Txokolate jana, Latsarien plazan.

23:00

Itzearen ehorzketa, Ilargi txarangarekin.

Amaieran, traka.